

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Gure produktua bezeroarengana helarazteko, gure komunikazio kanala, **zuzena** izango da. Bezeroekin harreman zuzen bat izango dugu, hau da, beraiek dituzten eskariak nolakoak eta zeintzuk izango diren esango digute. Eskaeraren baldintzak eta jarraibideak jakinda, gure organoak egingo ditugu. Bezeroak gurekin komunikatu ahal izateko, **webgune** bat izango dugu, hemendik gure telefono, kokapen edota korreo elektronikoa aurkitu ahal izango dute. Ondoren gurekin, komunikatu ahal izateko.

Gure banaketa kanala **garraio enpresa** bat izango da. Kasu honetan kontratatuko dugun enpresa, **Aero-ferr** izango da. Honek, gure produktua bezeroengana modu erraz eta efizientean heltzeko aukera emango liguke. Enpresa hau kontratatzearen zergatia, beraien bizkortasun eta kritika positiboengaitik izan da. Gure produktuak, ahulak direnez, beraiek dituzten transporte modu seguruen ondorioz, produktua modu egokian helduko da. Kalitate handiko garraioa eskaintzen dugula ziurtatzen dugu, gure produktua egoera onean iritsiko dela bermatzeko, betiere gure bezeroen gogobetetzean pentsatuz.



Salmenta kanalei dagokionez, zuzena izango da. Izan ere, produktuak guk bertan salduko ditugu. Bezeroekin hasieran esan bezala, harreman zuzena izango dugu eta hauen beharrak eta eskariak guk bertan asetuko ditugu. Egia da, produktuak bezeroengana iristeko, lehen esan bezala Aero-ferr enpresa kontratatuko dugula, baina, edozein modutan ere gure bezeroekin harreman zuzena izango dugu.